

elkarriketa

ideia Europa Zaharra deituriko hidronomiaren behaketatik letorke. Ibai zaharren izenak Europa osoan antzekotasunak dituzte, Hans Krahe indoeuroparista alemaniarrek hidronomia indoeuroparra dela aldarrikatu du, baina euskararekin antzekotasun tipologiko eta etimologikoak dituzte. Europako hidronomiaren bi ezaugarri estruktural nabarmen *a* bokalaren nagusitasuna eta bokalez hasitako hitzen maiztasun handia dira. *A* bokala euskararen bokal menperatzailea da, baina apenas azaltzen da protoindoeuroparretan. Berezko euskal hitzen erdiak bokal batekin hasten dira, eta protoindoeuroparretan %10 baino gutxiago dira bokalez hasten direnak. Horrenbestez, egitura aldetik Europa Zaharreko hidronimoek indoeuropararren barruko euskararen azpibokabulario baten tankera dute.

Zein hizkuntza hitz egiten ziren Europan kontinentea indoeuropartu aurretik, eta zein lurraldetan hitz egiten zen?

Hainbat hizkuntza zeuden eta denak galdurik daude egun, euskara izan ezik. Besteak beste, raetiera Alpeetan, etruskoa Italian, iberiarra Penintsulan, eta pictisha Irlanda eta Eskozia iparraldeko zenbait partetan. Gogoratu behar da azken glaziazioak iraun zuen bitartean, zeina duela 10.000 urte amaitu zen, oso jende gutxi bizi zela Pirinio eta Alpeetatik iparraldera, lurralde hegoaldekoenetan salbu. Gaur egungo Frantziaren hegoaldean jende dezente bizi zen, tenperatura aski epe-la baitzen horretarako. Nire ustetan, glaziazioa gairitu zuten guztiek euskal hizkuntza —hots, euskararen hasierako eiteak— mintzatzen zuten Frantziako hegoaldean, eta izotza desagertzen joan zen heinean eta kontinentea apurka gizakientzat berriro bizigarri bihurtzen joan zen heinean, bere erretiro lekuetatik iparralderantz mugitzen hasi zen jendeak berarekin eramanez zuela euskara ia kontinenteko parte guztietara. Euskararen historia bi partetan banatutako prozesu baten moduan ikusten dut. Lehen zatia, euskararen zabaltze prehistorikoan datza, hasi Frantziako hegoaldean eta Iberiako Penintsulako iparraldean eta Pirinio eta Alpeetatik iparralderako Europa guztia hartu arte. Bigarren partean atzeratze edo txikiagotze prozesu bat nabari daiteke, hizkuntza indoeuroparrak hedatzearen ondorio. Historiaurreko garaietan hasi zen prozesu hori, historian zehar jarraitu du eta oraindik nabarmenezko modukoa da. Zorionez, ez estatuen arteko mugatik hegoaldera, baina oso nabarmena da Frantziako aldean, Frantziako politika zentralistaren erruz, hizkuntza minoritarioen etsaia baita, ez bakarrik euskararena, baita okzitanierarena, Povençakoarena, Alsaziakoarena eta bretoierarena ere.

Zure teoriaren bereizgarri nagusiak toponimoak eta hidronimoak ei dira. Adibide zehatzik azal diezagukezu?

Ibai izenen bi oinarri sarrienetakoak *ur* eta *is* dira. Hans Krahek irakatsi izan digu elementu toponimiko baten esanahia zenbat eta orokorragoa izan

orduan eta zabalduagoa dela izena bera. Horregatik, oso esanguratsua da ibai izenen sustrai ohikoenek esanahi hidronomiko oinarritzkoena dutela; *ura*, alegia. *Ur*-ekin hori begi bistakoa da; ura adierazteko hitz arruntena hori da euskaraz. Alemanian erreka asko daude *Auerbach* (*Bach* alemanieraz) izena dutenak; izan ere, *Auer ur* zaharragotik dator. *Is*-entzako *ura* esanahia (euskarazko grafian *iz*-), Resurreccion Maria Azkue eta Johannes Hubschmidek berreskuratu zuten, hainbat hitzetan oinarriturik, jatorriz konposatuak direnetan batez ere; besteak beste, *izurde* (hots, *iz*- + *urde*, literalki *ura* + *urde*), *iztil* (erortzen ari den ur tanta), *izpazter* (euskalki zenbaitetan *kosta*, *itsasertza* eta baita kostaldeko herri baten izena), *Izpegi* (Baigorri eta Baztan bitarteko mendi garai baten izena, zeinetatik itsasoa ikus litekeen), *izotz* (*iz* + *hotz*, ur hotza alegia) eta Azkue-ren hiztegian topa litezkeen beste hainbat. Interpretazio horren kontrapuntua Luis Mitxelena (Koldo Mitxelena) eta Larry Traskek eman dute. Horiek iradokitzen dute hitzen *iz*-partea jatorri ezberdinak dituela eta ez esanahi soil bat. Adibidez, *giza* (gizon hitzaren forma konposatua) *izurde*-ren kasuan. Baina ikertu ditudan gairontzeko hizkuntza guztietatik bakar batean ere ez zaio *izurdeari gizonurdea* deitzen. Aldiz, goi eta erdialdeko alemanieran *mer-swin* deitzen zaio, eta *itsasoko urdea* esan nahi duen. Iru-ditzen zait Mitxelenak aipaturiko *gizaurde* hori teoria mugatuegia dela, eta *izurde*-ri esanahi bat emateko saio lokal bat dela, behin *iz*- ura azaltzeko termino moduan erabiltzeari utzi zitzaionean ez baitzuen ulertu haren jatorrizko esanahia. Hala, nire ustetan, justifikaturik dago urarentzako hitz zaharra (*is*-) toponimo askotan eta ia hidronimo guztietan azaltzea.

Zure teoria berresten duen beste erakusgarri linguistikorik ba al da?

Bai, badira gehiago. Esaterako, badira mendebaldeko hizkuntza indoeuroparretan zenbait hitz arrunt indoeuropar etimologiaren bitartez azal ezin daitezkeenak baina euskararen mailegu bezala uler daitezkeenak. Adibide bat: lainerko *grandis* (handia) euska-

«Pirinio eta Alpeetatik iparralderako Europa euskal hitzunek hartu zuten, azken glaziazioaren ostean, duela 10.000 bat urte inguru»



«Europako hidronomiaren ezaugarri estruktural nabarmen bat 'a' bokalaren nagusitasuna da. 'A' bokala euskararen bokal menperatzailea da»

Euskararen irauteko gaitasunak liluratua

«Hamar urtetan zehar euskarak eta euskaldunek Europaren formakuntzan izan duten garrantziaz pentsatu, idatzi eta hitzegun dut. Oso esker onez hartzen dut aurreneko aldiz ez soilik euskarari buruz, baizik eta euskaldunei zuzenki hitzegiteko aukera hau. Nire ikuspuntua euskaldunok zuen buraz duzenarekin bateragarriak izatea espero dut», adierazi digu Theo Vennemanek elkarriketaren amaieran. Matematikak, fisika, filologia germanikoa, indoeuropearra, eta Filosofia ikasi dituen ikertzaile honentzat, «munduko gauza bitxi eta ederrenetakoa da, Europako hizkuntza eta kultura zaharrenak, milaka urteetan zehar iraun eta garatu izana, nahiz eta indoeuropear artotz indartsuen zabaltze oldarkorra izan kontinentean gari batean. Mirari honen handitasuna ulertu eta ikasteko argigarri izan liteke ondorengo adibidea. Wilhelm von Humboldt euskal kulturaren ikerle eta zaletuak euskara bere mendearen amaierarako (XIX.a) galduta izango zela esan zuen. XXI.ean bizi gara, eta euskal hizkuntza oraindik oso bizirik dago, behintzat Frantzia eta Espainiako mugatik hegoaldera». Hizkuntza minoritarioen etorkizunaz galdetuta, «globalizazioak hartu duen norabide eta joera ikusita, beldur naiz Europako hizkuntza guztiak, ingelesa salbu —baita espainiera, frantsesa, alemaniera, eta errusiera ere— ez ote diren hizkuntza minoritario bihurtuko, eta ondorioz desagertzeko arriskuan izango. Edonola ere, Von Humboldten kasuak erakutsi digu euskararen inguruko aurikuspun ezkorrek oker egoteko aukera handiak dituztela ...».

razko *handi*-rekin nolabait loturik da goela aspaldiko ustea da. Gisa horretako loturak garai batean ikusten ziren modu bakarrari kasu eginez, mailegua latinetik euskararako litzateke. Baina, euskarak maileguak hartzeko dituen arauen arabera, hitza *garandi* bihurtuko litzateke eta ez *handi*. Iker-tzaileek etsi egin zuten, eta alde batera utzi teoria hori. Teoria berriak bi hitzak modu naturalenean lotzen ditu; euskararen historiaurreko *grandi* latinak hartu zuen mailegu bezala, *grandis*, *grande* moduan. Gero euskarak izandako garapenaren bidez hasierako *grandi randi* bilakatu zen lehenik eta *handi* geroago. Ez da zail ikusten gisa honetako konparazioak linguista aditu batek eginak behar direla izan. Ez da harritzekoa, beraz, euskara eta mendebaldeko hizkuntza indoeuroparren arteko mailegu lotura prehistorikoak ezartzen lehen zientzia linguistika izatea. Ez filologia tradizionalak ez historia ikerketa garbiek ez dute halako lorpenik egin.

Zer diote gainerako zientziek zure teoriaren inguruan?

Ez naiz bestelako zientzietako aditua, baina konfiantza handia dut hizkuntzen zientzian. Nolanahi ere, poztan nau galdera hori egin izanak, jende askok ez baitu sinesten giza adimenaren zientzietan, soilik zientzia naturaletan baizik. Horregatik, pozik esango dizut genetika antropologikoak, giza-ki geneen zientzia biologikoak nire teoria berretsi duela, genetistek berriki ezarri baitute europar guztiak jatorriz Pirinioetatik oso hurbil bizi ziren populazioetatik datozela eta portzen-taia handi batean euskaldunen gene berberak dituztela. Laburki esateko: bai linguistikak eta baita genetikak ere europar guztiak jatorrizko euskaldunen ondorengoak direla ondorioztatu dute. Europar guztiak euskaldunak dira, nahiz eta desberdintasun batzuk izan; egiazko euskaldun eta gainontzeko europarren arteko desberdintasun linguistikoa da euskaldunek oraindik hizkuntza europar zaharra hitz egiten dutela, gainontzeko guztiok hizkuntza indoeuroparretara aldatu garela eta batzuk Asia iparraldean ekarritako hizkuntza uralikoetara: saamia, finera, estoniera eta hungariera.

Ba al duzu teoriarik euskararen jatorriaren inguruan? Eta zer pentsatzen duzu beste aditu batzuek plazaraturiko gainean?

Ni nahiko pozik nago nire ikuspuntuari; hots, euskara Europako jatorrizko hizkuntza dela eta euskaldunak jatorrizko europarrak direla. Genetistek azkenaldian esaten digute gizaki guztiak eta, ondorioz, hizkuntza guztiak Afrikatik datozela. Nik ez dut arazorik ideia horrekin, duela 40.000 urteko garaietara baitoa. Nire teoriak duen puntu garrantzitsua da, Europako historiaurre berriena ulertzen den moduan, ez direla euskaldunak Europara nonbaitetik etorri direnak. Horregatik aurkitzen dira euskarazko leku izenak, euskarazko hitzak, errealitatea ikusteko euskal moduak eta euskal geneak Europa osoan.